

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO
KONTSEILUAREN 2020KO URRIAREN 23KO BILERAREN AKTA**

Lehendakariak deituta, eratuta geratzen da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua, 2020ko urriaren 23an, 09:00an. Hona bilerara bertaratutakoak eta bertan jorratutako gai-ordena:

DEITUAK

LEHENDAKARIA

Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea

BOKALAK

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna
Nerea Urien Azpitarte andrea
Hernando Lacalle Edeso jauna.
Josu I. Garay Ibañez de Elejalde jauna.

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna



GAI-ORDENA

LEHENENGOA.- Administrazio Kontseilua eratzea

Gaurko 209 zenbakidun EHAAn argitaratu da 238/2020 DEKRETUA, urriaren 20koa, zeinaz partzialki aldatzen baita «Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua» ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren osaera; hori dela eta, eta kide guztiak bertan direla, karguak onartu dira, eta formalki eratuta geratu da ente publikoaren Administrazio Kontseilua, honela osatuta:

- Lehendakaria: Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea, Osasuneko sailburua.
- Lehenengo bokala eta lehendakariordea: Ignacio Jesús Berraondo Zabalegi, Osasuneko sailburuordea.
- Bigarren bokala: Nerea Urien Azpitarte andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.
- Hirugarren bokala eta idazkaria: Ibon Etxeberria Olañeta, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.
- Laugarren bokala: Hernando Lacalle Edeso, Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea.
- Bosgarren bokala: Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde, Finantzen Euskal Institutuko zuzendari nagusia.

BIGARRENA.- Kargutik kentzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntzako zuzendaria

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan jasotakoaren arabera eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren bidez onartutako «Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua» Ente Publikoaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluekin bat etorri, hona Administrazio Kontseiluak hartutako

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Andoni Arcelay Salazar jauna kargutik kentzea, berak eskatuta, eta hari eskerrak ematea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Osasun Laguntzako zuzendari gisa egindako lanagatik.

Bigarrena.- Erabaki honek urte honetako urriaren 23tik aurrera sortuko ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Zuzendaritza Nagusiko kargu-uzteak eta izendapenak

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. atalean aurreikusitakoaren arabera eta Osakidetza erakunde publikoaren Estatutu Sozialen 8.5g) atalean (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua) ezarritakoari lotuz, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hauek hartu ditu.

ERABAKIAK:

Lehena.- Juan Luis Diego Casals jauna kargutik kentzea, eta hari eskerrak ematea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusi izendatu zutenetik egin duen lan guztiagatik. Erabaki honek 2020ko urriaren 25etik aurrera sortuko ditu ondorioak (egun hori barne), hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Bigarrena.- María Rosa Pérez Esquerdo andrea izendatzea «Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua» ente publikoaren zuzendari nagusi. Erabaki honek 2020ko urriaren 26tik aurrera sortuko ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Laguntza Sanitarioko Zuzendaritzaren berrantolaketa

Zuzendaritza hau berrantolatzeko beharra aztertu da, eta, horretarako, Zuzendaritza Nagusiari eskatu zaio planteamendu bat aurkez dezala hurrengo Administrazio Kontseilurako.

BOSGARRENA.- Hurrengo Administrazio Kontseiluaren deialdia


Erabaki da hurrengo bilkura 2020ko urriaren 27an (asteartea) egitea.

SEIGARRENA.- Eskariak eta galderak

Eta lantzeko beste gairik ez denez, bilkura amaitutzat jo da 2020ko urriaren 23an, 10:30ean.



**Sin.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Sin.: MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA
LEHENDAKARIA**